

noaua

Herriraren aldeko
mozioa onartu dute
EH Bilduk eta EAJk

Agara Agirre,
artisau ogibidez

"Amaren eskuak",
igandean Sutegin

EZ GARA PALESTINAZ ARI


Antzerkia . Bertsoak . Pianoa . Gitarra . Akordeoia . Poesia



Hastera doa

NOAUA! Kulturaldia

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862



**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

ONTZI ARINETAN PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



INGURUMENA GUZTION ARDURA DA BIRZIKLA DEZAGUN!

Albistearen iruditan

Konpostatzen ikasteko formazio saioa

Larunbat honetan, azaroaren 9an, 12:00etan hilerri zaharreko konpostagunean. Deialdia, interesa duten bizilagun hauei dago zuzendua; Kale Nagusia 34,36,38 eta 40; San Inazio 5,7,9 eta 11; eta Alperroburu 1 eta 3 zenbakietan bizi direnei. Gehienez ordu erdi edo hiru ordu laurden luzatuko da saioa.

Usurbil Zero Zaborretik berri eman dutenez, "hilerri zaharraren ondoko zuhaizpean dagoen auzo-konpostagunean, bada lekua familia gehiagok euren hondakin organikoak konpostatzeko. Inskribatzen direnen hurrenkera errespetatuko da gelditzen diren plaza guztiak osatu arte". Gogoan izan, organikoa konpostatzen duten herritarrei, %40ko hobaria aplikatuko zaie.

Argibide edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 650 374 936 telefono zenbakira edo idatzi email bat usurbilzerozabor@gmail.com



Larunbat honetan egingo da ikastaroa.

Laburrean

Hitzaldia Aginagan

Gaur zortzi, azaroaren 15ean San Praixku Guraso Elkarteak antolatuta. 19:00etan Aginagako ludotekan hasiko den saioak zeloak izango ditu hizpide nagusi.

"Zergatik sortzen dira zeloak eta nola eragiten dute egunerokotasunean?", horixe hitzaldirako proposatzen duten gaia.

Akatsak zuzenduz

Ordenagailuak eta osagarriak berrerabiltzeko moduan konpondu eta doan banatu asmo dituen Eginklik! izeneko lan talde berria osatu da Usurbilen.

Hauxe da telefono zenbaki zuzena (aurrekoan gaizki eman genuen): 649 211 665, Mikel. Posta elektronikoa: eginklik@gmail.com

Irakurketa topaketa

Azaroaren 25ean, 19:00etan liburutegian, Jon Arretxeren "19 kamera" liburua aztertuko dute. Interesa duenak, Sutegiko liburutegiko harrera gunera bertaratu eta jakinarazi dezala inolako konpromisorik gabe. Gainera, liburuaren ale ezberdinak eskuratu daitezke bertan. Pako Aristik egingo ditu gidari lanak topaketa egunean.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaia.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregei ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Nondik begiratzen den

Gauzei nola begiratzen diegun, hor errealitatearen gure pertzeptzioa. Hor interpretazioa, iritzia, jarrera. Beti betaurreko berdina erabiltzen baditugu, pertzeptzio hori ez da aldatuko. Baldin eta, noizean behin, ondokoaren betaurrekoak hartu, eta errealitatea bestea begietatik ikusten saiatzen ez garen artean. Eguneroko bizitzan informazioa irenstera ohituta gaudela. Baina, noski, nondik jasotzen dugun informazioa? Zeinen betaurrekoetik begiratutako errealitatearen interpretazioa da jaten duguna?

Urriaren erdialdean hasi ziren bi makroepaiketa, Segiko kide izatea leporatzen dieten 40 gazteren eta 02/35 sumarioa edo Herriko tabernen auzia bezala ezagutzen den beste 36 euskal herritarren aurkakoa. Egun horietako albisteei, eta batez ere, argazkiei erreparatu zien jakin-go du epaiketa horien astakeria zenbaterainokoa den. Irudiarik soilik erreparatuta, bai, frogari erreparatuz gero sentsazio hori mila handiz handiago baita. Gehiago jakin nahi due-

na soilik joango da harago, eta konaturatuko da ia 80 lagun horien aurka Espainiak aurkeztu dituen frogak ero moduan iletik tiratzeko modukoak direla, demokrazia batean, pentsaezinak.

Norbait akusatze frogan artean inoiz pentsatuko zenuke europarlamentari izatea egon daitekeela? Pertsona batek kargu hori lortzeko, irakurle, jendearen botoak behar ditu: hauteskudeen bidez soilik lor daitezke. Eta zer dira hauteskudeak, demokrazia batean? Ez ote dira sistema guztiaren oinarria? Jarrai dezagun. Norbait akusatze frogan artean inoiz pentsatuko zenuke lan politikoa egitea egon daitekeela? Epaitu daiteke norbait manifestazio batera joateagatik? Epaitu daiteke norbait, errealitatea gustatu ez, eta hori aldatzeko talde batean antolatu eta bizi duen panorama aldatzen saiatzeagatik?

Azken bi galdera horien erantzuna ezezkia dela uste baduzu, zure betaurrekoak bi eratakoak izan daitezke, nondik begiratzen den, edo

nork begiratzen duen. Giza eskubideetan, eskubide zibil eta politikoe-tan sinesten duen orok, horien bermatzea ezinbestekoa dela sinesten duen orok esango dizu zuzen zaudela, ez duzula betaurrekoak garbitu beharrik. Baina eskubide, independentzia eta antzeko terminoei alegia dien edonork esango dizu terrorista tipikoaren betaurrekoak dituzela jantzita. Bi auzietako irudiak, albisteak ikusi eta harro sentitzen dira pertsona horiek. "Oh, zenbat terrorista justiziaren arkuaren azpitik pasatzen", edo antzerako zerbait pentsatuko dute.

Hori guztia gutxi ez balitz, Estraburgoko epaitegiak Ines del Rioren alde egin izanak alarma guztiak piztu ditu Espainian. Noski, hainbeste urte "dena da ETA" esanez, jendar-teko ahots muturrekoenak lasaitzen zituzten, bidali zenbait euskal herritar tarteka Espainiako Auzitegi Nazionalera, eta nahiko. Baina Espainiari bere mugaz gaindiko eta botere gehiagoko auzitegi batek arrazoiak kendu dihonean... Nola justifikatu

orain artean egindako eskubide urraketa guztiak? Hedabide eskuindar guztiak putreen modura ari dira odolaren bila, moraltasunaren ize-nean hitz egiten, eta bide batez, bizi osorako kartzela zigorra justifikatzen.

Aieteko konferentziatik eta ETAK jardun armatua utzi zuenetik bi urte pasa dira. Gogoan dut nola baikortasunaren betaurrekoak jantzituen lehenengo hilabeteetan. Gero ilusio hori guztia airea galtzen joan da, pixkanaka, aurrerapausorik antzematen ez delako. Beharbada, horrelako prozesuek guk nahi baino denbora gehiago hartzen dute, eta pazientzia pixka bat da behar duguna. Baina zenbaiten jarrera estatiko, astun eta tematiak ezkortasunaren betaurrekoak jartzera behartzen gaitu. Eta zer nahi duzue esatea, garai berria bolo-bolo dabil Euskal Herrian, baina eguneroko albisteei begiratu-ta (agur eta bandera frankistak ikusi ziren Madrilen egin zen biktimen manifestazioan, eta ez bat, eta ez bi), berritik gutxi du bizi dugun garaiak.

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | **Maialen Unanue** | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Irisingarritasuna hobetuko duen ordenantza

Esku hartzeko irizpide eta neurriak zehaztu eta erregulatzea, helburu horixe du aurreko asteko osoko bilkuran gehiengo osoz hasieraz onartu zen udal ordenantza honek. Guztia, "ezintasuna duten pertsonen ingurune fisikora iristeko modua izan dezaten". Errealitatean sarritan oztopo ugari-ekin topo egiten baitute. Hainbat

etxebizitzetan dauden oztopoei aurre egin nahi dio aipatu araudi honek.

Argi dio udal txostenak, "eraikinetako etxebizitza askok eta askok, eta askotan eraikinek ere, irisingarritasunaren aldetik zailtasunak eta arazoak dituzte ezinduentzat. Hiri-gintza edota arkitektura trabak dira ezinduei irisingarritasuna zailtzen

edo eragozten dietenak". Hartara, irisingarritasuna hobetzeko igogailuak edo arrapalak jartzea erraztu nahi du udal ordenantza honek.

Araudi honetan, "nahitaezko desjabetzea bideratzeko irizpideak eta metodologia finkatzen dira". Hona-koa ere ahalbidetuko du, "igogailuak edo bestelako elementuak instalatzeko ezinbestekoak suertatzen

diren espazio libreko edo jabari publikoko azalera hartzea".

Bilduk eta PSE-EEK udal ordenantzen alde bozkatu zuten. Hamakabat, Aralar eta EAJ-PNV abstentitu ziren. 30 lan eguneko alegazio epea irekiko da orain. Erreklamazio-rik ez bada aurkezten, udal ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

Herriraren aldeko mozioa aurkeztu eta onartu dute EH Bilduk eta EAJ-PNVk

Irailaren 30ean Herriraren aurka burutu zen polizia operazioaren harira, premiazko eta ezohiko osoko bilkura deitu zuten urriaren 3an. Saio hartan, Herriraren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz. EAJ-PNVko ordezkari Andoni Atxega abstenitu egin zen bozketan. Gasteizko Legebiltzarrean EH Bilduk eta EAJ-PNVk adostu berri zuten mozioa aurkeztu eta onartzea nahia-go zuela adierazi zuten. Une hartan ez, baina hurrengo osoko bilkura batean Gasteizen aurrera atera zen testu hura Usurbilgo udalbatza aretoan tratatzekotan geratu ziren. Urriaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkura eraman zuten EH Bilduk eta EAJ-PNVk Herriraren aurkako polizia operazioaren harira adostu duten mozioa. Gehiengo osoz onartu zen, bi udal taldeon aldeko bozkekin. PSE-EE eta Hamaikabat abstenitu ziren.

Herriraren aurkako erasoari buruzko mozioa

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan da ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jardueraren armatuaren behin betiko amaiera. Herri hau, giza eskubide guzti onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garrantzuz eta herritarren borondatea oinarrituz hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi eginda-ko hautua da.

Hilabete honetan, "Herrira" plataformako kideen aurkako operazioa bizitu dugu. "Dena ETA da" tesiari eutsiz egin dituzte atxiloketa, miaketa eta operazioa. Euskal Herrian bake



Moziok EH Bildu eta EAJ-PNVren babesa jaso zuten.

MOZIOAN JASOA

"Herrira-n lanean ari ziren atxilotutako pertsonen eta elkartearen ezartzen dizkien karguak bertan behera uztea eskatzen da"

prozesua bultzatu eta finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik. Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarritzko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoek aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegia dela adieraziz.

Oinarritzko eskubideen etengabe-ko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak bizi duen

soluzio bilaketarako. Soluzioa baitator batetik, oinarritzko eskubide ororen errespetatzeetik eta bestetik, gure Herriak bizi duen gatazka politikoa itxiko duen akordio politikoa lortzetik; beti ere gure Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko duen eskubide demokratikoa oinarri hartuta. Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarritzko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartze eta partehartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitza ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokietatik.

1. Usurbilgo udalbatzak PPren Gobernuaren eta Auzitegi Nazionalaren estrategia politiko-judizial partekatua salatzen dute, "dena ETA da"

tesia aktibatzeagatik, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren eta ETAn erabakia- ren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean, aipatu taldearen ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilzalako. Zentzu horretan, udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio salaketa honekin bat egin dezan.

2. Usurbilgo udalbatzak euskal herritarren eskubide zibil eta politikoen errespetu eta "Herrira"ren baitan euskal preso oinarritzko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako pertsonen eta elkartearen ezartzen dizkien karguak bertan behera uztea eskatzen du. Zentzu horretan, udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio eskaera honen defentsa egin dezan.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Udalbatza, epaiketa politikoen aurka

Espainiako Auzitegi Nazionalen abian diren epaiketen harira (tartean, 35/02 edo "herriko tabernen" auziari loturikoa), udalbatzak mozioa onartu zuen gehiengo osoz, urriaren 29ko osoko ohiko bilkuran. 36 lagunekin batera beste 110 herriko elkarte edo taberna auziperatu baitituzte, Aitzaga Elkarte tartean. "Aitzaga Elkarte bera ere inputatua da. Entzutegi Nazionalaren teoria aplikatuta, erakundea diruz lagundu izana leporatzen zaio", dio testuak. Mozioak berak, gerta daitekeenaz ohartarazten du: "Orain, salbuespeneko epaitegiak ETArekin kolaboratzea ontzat emango balu, bere ondasun guztiak konfiskatzeko arriskua dago". Gaineratzen dutenez, bada herritar bat, Marisa Alejandro, behin behinean aske, baina "bere militantzia politikoa noiz epaituko duten zain".

Epaiketa hauek, Euskal Herrian ireki den garai berriaren aurkako erasoak direla dio mozioak, eta Estatu espainolak mendeku politikoa bilatzen duela. Honen guztiaren aurrean, epaiketa politikoa gehiagorik ez egitea eskatzen da, edota epaiketa guztiak artxiba daitezela. Baita aniztasun politikoa eta adierazpen, elkartze nahiz askatasun politikoa errespetatzea, elkarbizitza oinarri sendoak jartzearekin batera. Aitzaga Elkarte-ari babesa adierazten dio mozioak, eta babesa adieraztera joan zen herritar talde bat osoko bilkurara, aurrez Usurbilgo LIBRE mugimenduak eginiko gonbitarekin bat eginenez, "Aitzaga libre" zioten kartelak eskutan zituztela.

Testua, EH Bilduren aldeko bozkekin onartu zen. PSE-EE, Hamaikabat eta EAJ-PNV absenteitu ziren. Bozketa aurretik



Hainbat herritar hurbildu ziren plenora, "Aitzaga Libre" aldarria eskuartean zutela.

MOZIOAN JASOA

"Aniztasun politikoa eta elkartze, nahiz adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela"

eta adierazpenen tartean, mozioa babestuko zutela iragarri arren, Aralar taldeak zehaztasun bat egin nahi izan zion onartzera zihoazen testuari. Mozioarekin ados egon arren, testuak Aitzaga herriko taldeei eta herritar orori beti irekia egon dela dio. Esaldi horrekin desados agertu zen Aralar taldea. Euren esanetan, iraganean, bertara sartu ezinik egon zirela adierazi zuten.

Honatx, urriaren 29an gehiengo osoz onarturiko mozioak dioena, bere osotasunean:

Epaiketa politikoa gehiagorik ez!

Urriaren 14an eta 17an hamarnaka euskal herritarren aurkako epaiketa hasi zen Espainiako Entzutegi Nazionalen. Azken urteetan zain egon

ondoren, batzuen kasuan gainera hamaika urte baino gehiago, epaiketa azken urratsera heldu da.

Urteetako ibilbideak argi eta garbi erakutsi du, salbuespeneko legeriaren itzalean, lan politikoa egiten ari ziren euskal herritarrek zigortu dituztela. Ehunka izan dira herri honetan, hauteskundeetan parte hartu nahi izateagatik, herri proiektuak aurrera ateratzen lana egiteagatik, sektore desberdinen kezkak bere egin eta politikoki erantzuteagatik auziperatu eta espetxeratu dituztenak.

Usurbilen bertan badugu herritar bat egoera jasanezin honetan, Marisa Alejandro hain zuzen ere. 50.000 euroko bermea ordainduta, 2010eko apirilaz geroztik behin behinako askatasunean da, bere militantzia politikoa noiz epaituko duten zain.

Are, 35/02 deituriko sumarioan, beste 110 bat elkarte bezala, Usurbilgo Aitzaga elkarte bera ere inputatua izan da. "Dena da ETA" Entzutegi Nazionalaren teoria aplikatuta, erakundea diruz lagundu izana leporatzen zaio, argi baino argiago denean elkar-

ko kideen ahaleginez sortutako eta zailtasunez mantendutako elkarte dela, herriko dinamikan txertatua, eta herriko taldeei eta herritar orori bere ateak beti ireki dizkiona. Orain, salbuespeneko epaitegiak ETArekin kolaboratzea ontzat emango balu, bere ondasun guztiak konfiskatzeko arriskuan dago. Zalantzarik ez dugu: epaiketa honekin Estatu espainolak mendeku politikoa bilatzen du.

Euskal Herrian, konponbide eta bake haizea indartsu dabilen honetan, iraganeko egoeretan itzultzerik ez du onartzen gizarteak. Sufrimendu fasea gainditu eta elkarriketa, akordioa eta aukera politikoa guztiekiko errespetua oinarri izango duen egoera behar dugu. Eta kontrako norabidean ematen diren urratsak baztertu egin behar direla argia da.

Bi epaiketa hauek, eta jarraian burutuko direnak testuinguru berean emango direla kontuan hartuta, garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide bakoitza blokeatu asmoz.

Hau guztia kontuan hartuta, udal honek honako erabaki hauek hartzen ditu:

-Ez daitezela epaiketa politikoa gehiagorik egin.

-Eskandaluzko instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezela.

-Prozedura judizial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadila.

-Aniztasun politikoa eta elkartze, nahiz adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela.

-Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar dituzgun.

Erabaki hartzeak, Txagañeta eta Portamusubera eremuetan

Txagañeta edota Portamusubera eremuei eragingo dien hirigintza alorreko bi erabaki hartu zituen udalbatzak, urriaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran:

Txagañetako karobia babestuko dute

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 izendapena duen eremuko ezaugarri fitxaren 10 aldaketa puntuala hasieraz onartzea erabaki zuen udalbatzak, gehiengo osoz. Beste erabaki bat ere hartu zen, "Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen 10 aldaketa honek eragiten duen eremu osoan eraikitze eta lur zatiketarako baimen emakidak etetea, beti ere hartutako erabaki berriak indarrean dagoen Erregimen Urbanistikoa aldatzen badu. Hasierako onespenerari loturiko etendura gehienez bi urteko epean indarrean egongo da, aipatutako planaren behin betiko onespenera lortzen denean indarririk gabe geratuko delarik". Orain, hilabete epea egongo da alegazioak aurkezteko. Iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuko dira.

Aginagako Txagañeta eremuko lur jabeekin hainbat bilera egin ostean, udalbatzak urriaren 29an hartutako erabaki honekin, honako aldaketak bideratu asmo daude:

■ Txagañetako mugapena



Txagañetako mugapena murriztea adostu da jabeekin, bertako kudeaketa ahalbidetzeko.

TXAGAÑETA EREMUA

"Aginagako Txagañeta eremuko lur jabeekin hainbat bilera egin ondoren, hainbat aldaketa bideratu dira"

murriztea bertako kudeaketa ahalbidetzeko.

■ Zati bat desklasifikatzea, bertako bi etxe jabeek eremu horretan dagoen karobia babesteko eginiko eskaera bete dadin.

■ Zati baterako urbanizagarri industrialia sailkapena mantentzea, bertan pabilioi bat eraiki dadin.

■ S-4 sektore berri bat sortzea, Euskadiko Lurzoruaren Legeak ezarritako estandarrak betetzen dituen.

■ Eremuko eraikinetara sarbidea hobetuko duen bidea sortzea.

Portamusubera

Udalak berriz izapidetu du plana. Eta azken osoko bilkurara eremu honi loturiko honako

proposamena eraman zuen; eremu horretako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren hasierako onespenerako dokumentuari aurkeztua zioten alegazioa partzialki aintzakotzat hartzea eta Plan Berezia behin betikoz onartzea. EH Bilduk alde bozkatu zuen. Hamaikabat, PSE-EE eta EAJ-PNV abstenitu ziren.

Plan berezia, Foru Aldundira bidaliko da eta udalbatzak hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Urdaiaga baserriko birgaitzea

Gai honen harira, batetik, baserria bera berritzeko obra, interes bereziko izendatzea onartu zuen udalbatzak aho batez, "duen interes historiko, artistiko eta kulturalagatik". Eraberritze lanak bideratzeko emandako udal-baimena dela eta, "ezarritako eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zergari %50eko hobaria aplikatzeko agintzea".

2014an taxi-tarifak %2,2 garestiago

KPI igoera baino ez da aplikatuko datorren urterako taxi tarifen igoeran. Hala erabaki zuen udalbatzak aho batez, urriaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Herri barruko auto taxien tarifa berriak onartu ditu beraz Udalak, 2014rako.

Taxien elkarreztatik bi proposamen jasoak zituzten; G. Taxi eta Agitax elkarrekin. "Bi proposamenak aztertu ondoren eta aurreko urteetan finkatutako irizpidean oinarrituz, KPlaren igoera bultzatuz, gehiengo, AGITAXek aurkeztutako proposamenaren alde" bozkatu zuten Buruntzaldeko udal ordezkariak, irailaren 20an Lasarte-Oriako udalean egin zuten bilera. Eta hitzordu hartan bailarako udal ordezkarien gehiengoaren babesa jaso zuen AGITAXek eginiko proposamen hau izan zen hain zuzen, gobernu taldeak urriaren 29ko osoko bilkurara eraman zuena. Tarifa berriak aho batez onartu ostean, erabakia Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari helaraziko zaio, "behin betiko onespenera eman dezan". Ziurtagiri bat bidaliko zaie besteak beste, herriko taxi titularreri.

Taxi tarifak 2014

Lan egunetan, 7:00etatik 22:00etara:

Gutxiena: 5,1200 euro.

Egindako kilometroak: 1,0885 euro.

Itxaro ordua: 20,8880 euro.

22:00etatik 7:00etara, larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n 7:00etatik 22:00etara, eta igande zein jai egunetan:

Gutxiena: 6,1028 euro.

Egindako kilometroak: 1,7436 euro.

Itxaro ordua: 32,8274 euro.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470

errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

Artisauen eguna, azaroaren 1a

Hogeitik gora artisau gerturatu dira aurten, frontoian ospatu den XVIII. Artisautza Azokara. Hego haizeak berotu zuen giroa, eta herritar ugari bertaratu zen pilotalekura iragan ostira-lean. Tartean, azaroko lehen eguna izanik, hildako lagun edo senideak oroitzera kalera ateratako bat baino gehiago. Askok bazkal aurreko tartea baliatu zuten, azokatik osteratxo bat egin eta erosketaren bat egiteko.



Erosleak baino ikusle gehiago izan ziren frontoi inguruan.

Ohikoa den moduan, erosleak baino ikusle gehiago izan ziren frontoian, postuetako eskaintza ikusten. Egur lanketan ari ziren artisau batzuk, harrigintzan diharduenaren postua ere hutsik egin gabe hor zen aurten ere.

Ukenduena, loreak, gaztak, edota aipatzekoa baita, bitxigintzako postu bat baino gehiago bisita zitezkeela. Bitxigileen artean, bi postu usurbildarrenak ziren.

Eta herritarrek ikusi genituen baita, hamaiketako goxo askoa zerbitzatzen. Taloak egiten aritu zen talde bat, eta beste lagun koadrila bat, gaztainak banatzen aritu zen.

Elkartasuna Aitzagakoei

Aldarrikapenerako tartea hartu zen azaroaren 1eko Artisautza Azokan. Aitzagari babesa adierazten aritu ziren herritarrek, goizetik eguerdi partera eginiko txandakako elkarretaratzeen bidez. Elkarteari babesa adierazteko ere sinadurak biltzen aritu ziren, Aitzaga atarian. Ekimenok, azken asteotako mobilizazioak bezala, Usurbilgo LIBRE mugimenduak deitu zituen.



Aitzagari elkartasuna adierazi zioten Artisautza Egunean.

Frontoi sarreran bestalde, banka etikoari buruzko infor-

mazioa banatzen aritu zen Usurbilgo Fiare taldea.

Errigora saskiak eskatzeko garaia

Kalitate goreneko produktuez hornituriko elkartasun saskia eska dezakezue azaroaren 14ra arte, NOAUA!ko egoitzan. 50 euro ordainduta, otar hauen barruan dauden Nafarroa hegoaldeko produktu goxo askoak etxera eraman ditzakezue. Saskiotako bat erositara, Nafarroako eremu ez euskalduneko euskalgintzari eta bertako nekazaritzari bultzada eman-godiozue. Laguntza premian dira eta.

Saskiak banatzeko egitasmoa, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza auzolanean indartzen dabilen Errigora ekimenak abiatu du. Eta baita bilgune honetako kideekin elkarlanean dabilizan Zazpiak Bat, AEK, Ikastolak eta Sortzen elkarteek ere. Nafarroa hegoaldeko produktuak plazaratzeko auzolanean dihardute.

- Prezioa: 50 euro.
- Produktuak: bi botila olio (bat ekologikoa), 3 piper poto (bat ekologikoa), potxak, kardoak, borraja, orburuak, 2 zainzuri lata, tomate-pikillo saltsa (ekologikoa), barazki krema (ekologikoa).
- Azaroaren 14ra arte: izen ematea eta eskariak. Azaroko azken astean: saskien banaketa eta ordainketak.
- facebook.com/ERRIGORAgara
Twitter: @errigora



ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak


Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

ARRUTI



NAGUSIA 10-USURBIL

943 37 04 81



EROSKI

city

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

Sarriegui



Sarriegui Patatak ·Erribera kalea 12, Usurbil Tel: 943 371 011



Artisau, ogibidez

Lepondo, eskumutur edo hatzetako apaingarri ugari ikus daitezke urriaren 31z geroztik zabalik den Artzabalgo erakusketan. Milimetrotan Bitxigileak taldeko kideek eskuz eginiko lanak dira. Maider Zunzunegi legorretarraren, Maider Mendinueta legazpiarraren eta usurbildar baten bitxiak; Agara Agirrerrenak. Milimetroekin lan egitearen omenez jarri diote izena, 2012ko uztailan abiatu eta egun euren ogibide nagusi duten bitxigintza egitasmo honi. Igaran dute tailerra. Beharrezko lanabesak erosi, eta espazioa zabalduta, lanean dihardute azken urte honetan. Hango eta hemengo azokekin euren artisau lanak ezagutzera ematen ari dira. Orain Artzabalen dute erakusketak. Azaroaren 1eko Artisautza Azokan ere parte hartu zuten. Egunduz bizi dugun garai zailari aurre egiteko, proiektu sortzaile honen alde eginiko apustuaz hitz egin dute Milimetrotan taldeko kideek NOAUA!rekin.

Apustu handia izango zen proiektu hau martxan jartzea. Ondo irtingo zen jakin gabe, apustu zaila?

Maider Mendinueta: Ez dakizu nola joango den proiektua, nondik segi. Zaila izan da. Gauza batzuk ondo irten dira, gauza batzuk gaizki, baina forma ematen ari gara. Orain ikusten dugu jada, honetaz nahi genukeela bizi.

Agara Agirre: Hasieran itsutsuan apustua egin genuen, jakin gabe zertara gindoazen. Argi genuen zer egin, era batera edo bestera honetaz bizi nahi genuela, baina ez genuen zer zetorkigun.

Urtebete hau ikasketak bat izan da, eta pixkanaka arazok ateratu diren moduan kon-



Maider Zunzunegi, Agara Agirre eta Maider Mendinuetak erakusketak ipini dute Artzabalen.

MAIDER MENDINUETA

“Autore bitxigintza lantzen dugu. Lehengo bitxien parean, pauso bat eman nahi dugu”

pontzen joan gara.

Bitxi mota bat edo bestetan zentratzen zarete?

M.M. Autore bitxigintza lantzen dugu. Lehengo bitxien parean, pauso bat eman nahi dugu. Materialak nahastea gustatzen zaigu; zilarra, hariarekin, zintarekin, hezurrekin. Desberdin lan egiten dugu, eta gustatzen ari da. Harriekin, harri brutoeekin lan egiten dugu, puskatu eta piezei jarriaz. Emaizta oso ona eman digu eta jendeari gustatu zaio. Hori da gure ezaugarria.

Jendeak gustuko duzuela aipatzen duzue, azokaz azoka ibili zarete eta?

A.A. Aurkezpenerako balio izan zigun Donostiako gabonetako azokan egon ginen iaz, hilabetez. Erantzun ona jaso genuen. Egia da, publikoa bi-

txigintza mota honetara ez dagoela ohitua. Beste hiriburu batzuetan agian gehiago ikusten da, baina Donostian oraindik hastapenetan da. Halere, erantzun ona jaso genuen. Maiatzetik hona gehienbat Euskal Herrian ibili gara, eta hemendik kanpo, baita Madril eta Avilán ere. Esperientzia berri bat izan da, zure lana jendaurrean egote horrek dakartzan beldur eta baita ere poztasunarekin.

Erakusgai jarri izan dituzuen bitxien artean bada harribitxirik?

A.A. Geoda deitzen den bilduma bat, gehienbat saldu dena. Berezitasuna, harria jartzeko modua ezberdina dela. Maiderrek azaldu duen moduan, harria brutuan hartzen da. Harria puskatu egiten da, eta gero erretxinarekin jartzen dugu. Horrek ematen dio kolorea, eta ukitu desberdina. Geoda izeneko bilduma geoda harrietan inspiratua dago, horrek arrakasta handia izan du. Bildumaren ideia eta diseinua Maider Zunzunegirena izan zen. Bilduma honi esker, jen-

de askok Milimetrotan guzti honekin lotu du.

Artzabalen erakusketak jarri berri duzue. Zuen ze lan ikusi daitezke?

M.M. Material desberdinekin egindako piezak.

A.A. Egongo dira sei bilduma desberdin eta beste pieza solte batzuk.

Bitxiak emakume edo gizonen pertsona estilo konkretu batengan pentsatuta sortzen dituzue? Edo beste irizpide batzuk baliatzen dituzue?

A.A. Gure publikoa orain arte emakumezkoa izan da. Nabaritu dugu gizonen asko hurbildu dela gugana eskatuz hori, ez dela bitxirik egiten gizonen artean. Oraingoan ez dugu denborarik izan eta ez gara horretan zentratu. Etorkizuneko helburu bat bai litzaiteke zerbait egitea gizonen artean.

M.M. Bada Milimetrotaneko bilduma bat. Neronek egindako eratzun bat, bai neska eta mutilentzako. Hori saldu izan da gizonen artean.

“Ogibide honetaz bizitzeko apustua egin dugu eta lortzea espero dugu”

Bitxigintza da zuen ogibide nagusia?

Agara Agirre. Egia esan hiru-ron lan nagusia hau da. Beste bi kideek lanak dituzte, baina ez lan finkoak. Ogibide honetaz bizitzeko apustua egin dugu eta lortzea espero dugu.

Krisi egoera honi aurre egiteko, sortzaileak izan behar gara diote.

A.A. Irtenbide bat da, une zailtan agian errazagoa da halako apustuak egitea. Egia esan, apustu hau egin aurretik ez genuen egoera eroso edo finko bat. Horregatik hori atzean uztea ere ez da zaila izan. Eta baita ere, gure inguruan proiektu sortzaileak martxan jartzen ari direla ikusten dugu eta horiekin harremanetan egoteak indarra ematen du, hau da, ez zara bakarrik ikusten honetan guztian. Ikusi dugu bai azoketan, bai hortik kanpo ere proiektu ezberdin asko dagoela eta baita ere, proiektu ezberdinen arteko harremanak ari direla sortzen, krisi egoera honi erantzun bat emateko. Hor daude dirurik gabeko trukeak, elkarren artean, bizpahiru proiektuk bizi irauteko eginiko harremanak.

Lagun talde bat egon liteke herrian, halako proiektu bat martxan jartzea bururatu zaiona. Nondik hasi beharko lukete?

Maidar Mendinueta. Ideia oso on bat behar da, animatu



Azaroaren 1eko Artisautza Azokan hartu zuten parte.

AGARA AGIRRE

“Guk ez dugu denda bat, tailer bat dugu Igaran. Han bertan saldu izan dugu, han bertan ezagutzen dute egiten dugun prozesu guztia”

eta aurrera segi. Positiboa bazara eta gogoia badaukazu, ideia aurrera atera dezakezu.

A.A. Kontua da atera, harremanak egin eta ikusi posible dela. Harremanak egitea eta bakarrik ez zaudela sentitzea garrantzitsua da. Aurrera jarraitzeko indarra ematen du.

Espazio bat duzue lanketarako. Zuekin nola jarri harremanetan?

A.A. Guk ez dugu denda bat, tailer bat dugu Igaran. Bezeroak edo edonor etorri izan da

gure tailerra ikustera. Han bertan saldu izan dugu, han bertan ezagutzen dute egiten dugun prozesu guztia. Eta beti zabalik dago. Guri deituta hara gerturatu eta kito.

M.M. Enkargu bereziren bat eskatzen badiezue tailerrera gerturatu liteke.

Lan prozesu osoa bertan nola egiten duzuen ikus daiteke?

A.A. Interesgarria da. Ez da mundu oso ezagun bat. Orain arte bitxigintza oso gremio itxia izan da. Interesgarria izan daiteke daramazun bitxia nondik datorren ikustea.

Zuen gremioa itxia dela diozue. Zergatik?

A.A. Orain, bitxigintza belau-naldiz belau-naldi pasa den familiako ofizio bat izan da. Teknikak familiako sekretupean gelditu izan dira.

Lanbide heziketako ziklo bat

egin dugu eta horregatik oso zaila izan da praktikak lortzea halako bitxi dendatan. Normalean ez dutelako nahi izaten, familiakoa ez den norbait sartzeari.

Pena handia da, azkenean belaunaldiak ez badu jarraitzen jakinduria hori guztia galtzen ari delako. Gure apustua izan da baita praktikak eskaintzea Easo politeknikotik ateratzen den jendearentzat. Aurten lehen aldiz, ikasle bat dugu gurekin praktiketan.

Autore bitxigintza, artearekin lotua doan bitxigintza hau hemen inguruan zabaltzea oso garrantzitsua izanik, horretarako honetan lan egingo duen jende gehiago behar dela eta aukera eman behar zaiola uste dugu. Bestela, gu bezala kanpora joan behar du praktikak egitera eta jende hori galdu egiten da.

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

“Amaren eskuak” filma ikusteko aukera aparta

Udazken eta negu parterako Usurbilgo Udalak antolatutako euskarazko filmen zikloa abiatu berri da. Hilabete honetan hasi eta martxora arte, hilero lehen igandetan hurrei zuzenduriko pelikula proiektatuko dira Sutegiako auditorioan; bigarren igandetan helduei zuzendurikoak. Igande honetan, “Amaren eskuak” filma ikusteko aukera izango da, 18:00etatik aurrera kultur etxeko auditorioan. Sarrera, 5 eurotan.

Karmele Jaioren liburuan oinarrituta zuzendu du filma Mireia Gabilondok. Nerea, 38 urteko ama bat du protagonista. Egunkari bateko erredakzioan lan egiten du. Bere bizitza familiarra eta profesionala uztartu nahi ditu. Bere oreka eskasa



Donostiako Zinemaldian eman zuten lehen aldiz. Igandean, 18:00etan Sutegin

Ainara Gurrutzagak (ezkerrean) bete du protagonista nagusiaren rola.

halere, bertan behera eroriko zaio, memoria galera bat dela eta, bere ama Luisa ospitalera eramaten duten egunean. Nerea errudun sentitzen da gaixo-

tasunaren lehen arrastoak hasieran erreakzionatu ez zuelako, eta orain, Luisak iraganera jauzi nola egiten duen ikusiko du. Amak ezkutuan zuen aurpegi

bat ezagutuko du, beraien bien iraganeko bizipenen parekotasuna ikusiko du, beraien memorian bizi diren mamuen antzekotasuna.

Usurbil Kirol Elkarte 50 urte
1963-2013

Dagoeneko salgai dago Usurbilgo eskubaloi taldearen liburua!

50 urteko ibilbidea biltzen duen liburua Laurok, Lizardi eta Noaua! Kultur Elkartearen eskura dezakezu

15€

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, “Ez gara palestinez ari” ikuskizunaren gidariak

Urtarrilean aurkeztu zuten ikuskizuna hedabideen aurrean, eta geroztik hainbat saio eskaini dituzte. “Ez gara Palestinaz ari” lehen aldiz ikusi ahal izango dugu Usurbilen, larunbat honetan 20:00etan, Sutegin.

Unai Muñoak aurkezpen prentsurrekoan aditzera eman zuenez, “gure helburua da hainbat galdera ikur piztea, eta barne mundurantz bidaizteko aukera eskaintzea”. Euren kezka ikusleekin partekatu nahi dituzte.

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak izango dira ikuskizuna gidatuko dutenak. Mezuak du garrantzia, baina baita mezu hori helarazteko bitartekoak ere. Musika eta antzerkia izango dira “Ez gara Palestinaz ari” saioko beste bi osagai. Aitor Atxegak gitarra joko du, eta Imanol Kamiok akordeoia zein pianoa.

Barne munduaren isla

Hizpide eta kantugai hartuko dituzten gaiak askotarikoak izango dira: haurtzaroz, egoaz, askatasunaz, beldurrez eta gizotasunaz arituko dira. Unai Muñoaren esanetan, “bertsolari bezala, eta baita gure kulturagatik ere, aritzen gara gai estratosferikoez, gai sozialez eta politikoez.



Larunbat honetan, 20:00etan Sutegin. Sarrerak salgai dira Txiribogan eta NOAUA!n (argazkia: Txintxarri).

Baina gero ihes egiten diogu geure buruaz hitz egiteari; gure beldurrak, konplexuak, minak, frustrazioak eta beste partekatzeari eta ezkutuan ditugun hainbat alde erakusteari”. Ez diete gai sozialei garrantzirik kendu nahi, “baina gutaz aritzeak duen garrantzia” azpimarratu nahi dute ikuskizun honen bitartez.

Azaroak 9 larunbata

■ Ordua: 20:00etan.

■ Non: Sutegin.

■ Sarrerak: 8 euro egunean bertan edo aurrez, Txiriboga tabernan eta NOAUA! Kultur Elkartean. NOAUA!ko bazkideek 6 eurotan, aurrez eta soilik NOAUA!ko egoitzan.

NOAUA! Kulturaldia bi asteburutan gauzatuko da

Azaroak 8 ostirala “Aktibo toxikoa” antzezlan

■ 20:00 Sutegin.

■ Sarrera: 5€. NOAUA!n eta Txiribogan alde aurretik, leihatilan egunean bertan. NOAUA!ko bazkideek: 3€ (Soilik NOAUA!ko egoitzan, eta alde aurretik).



Azaroak 10 igandea Herriko ondarea ezagutzen

Jakoba Errekondo eta Itziar Illarramendiren azalpenak.

■ 9:30-13:00 frontoitik abiatuta, doan, irekia guztiontzat. Oharra: ibilbide amaieran, itzulera autobusez, oinez edo autoz egin ahal izango da.

“Izenik gabe 200x133” dokumentala

Zumetaren inguruko dokumentala.

■ Sutegin, 19:30ean.

■ Gonbidapen bidez. Horiek eskuratzeko: NOAUA!n eta Potxoenean.



Azaroak 14 osteguna Joseba Tapiaren hitzaldia

“Belarriak soinu”, Joseba Tapiaren hitzaldia.

■ 19:30ean Potxoenean. Doan.



Azaroak 17 igandea “Agur esatea” filma

Zuzendaria: Izaskun Arandia

■ 19:00 Sutegin.

■ Sarrera: 5€. NOAUA!n eta Txiribogan alde aurretik, leihatilan egunean bertan. NOAUA!ko bazkideek: 3€ (Soilik NOAUA!ko egoitzan, eta alde aurretik).

Hamaikakoa osatu du Usurbil Kirol Elkarteak



Hamaika talde osatu dituzte 2013-2014 denboraldian. Dagoeneko hasi dira lehen.

Egunez egun lanean jardun eta hobetzen joatea da lehentasuna, eta bidean lorpenak badatoz, askoz hobeto. 50. urteurrena ezin hobeto boro-bilduko dute eta hartara. Desio honekin hasi dute denboraldi berria.

Neska mutil kopuruen artean, ia erabateko oreka dago; nesken sei talde eta bost mutilenak. Nesketan, infantil mailako hiru talde daude, aurpegi berriak tartean, eta jokalaria kopuruak gorantz egin duela aipatu dute Usurbil Kirol Elkartetik. Aurreko denboraldian Kopako finalera heldu ziren, eta aurten ere, "ia posible den talde bat hor sartzea". Iazko lorpena errepikatzeak nahia dute. Hau guztia, emakumezkoen kirolean hobetzen ari diren adierazgarri dela diote eskubaloi taldeen bilgunetik.

KADETE ETA JUBENILAK

Kadete eta jubencilak nesken taldeak ere osatu dira. Eta neskei dagokienean amaitzeko, denboraldia goiko postuetan amaitu dezaketen seniorrak. "Lehen lau postuetan sailka daitezke", diote Usurbil Kirol Elkartetik. Lehen neurketak irabaziz ekin diote denboraldi berriari.

Aipatu moduan, mutilenak bost talde osatu dira aurtengo-

an. 13-14 bat jokalarirekin infantilak, 17 bat daude kadeteen taldean. Azkenek, ia Euskal Ligan mantendu daitezkeen, horixe eskubaloi klubaren nahia. Jubeniletan, Urnietarekin bat egin eta Usurbilen ize-nean osatu dute taldea. Eta seniorreko bi taldeak daude gero. Lehenik, 1. territorial mailakoa, "talde gaztea, perspektiba onekin lanean ari dena" eta seniorretako 2. nazional mailaren harrobi lanak egingo dituen. Arreta gune nagusia hain zuzen, seniorreko 2. nazional mailan jarria dute. Erronka potoloa dute esku artean; 1. nazional mailara igo ahal izatea.

Jokalaria guztiok, entrenatzaile talde batek gidatuko ditu. Ongi prestatutako entrenatzaileak dituzte, UKE-tik gogorarazten dutenez, horretarako prestakuntza ikastaroa egina baitute. Ikastaro hauetarako hain zuzen, eta hurrengo urteari begira, diru-laguntzetan hobekuntzarik bada hobeto, kirol elkarteko esanetan.

INSTALAKUNTZAK, TXIKI

50 urte bete berri ditu Usurbil Kirol Elkarteak. Mende erdia irailean ospatu zuen ekitaldi sorta batekin. Ekimenekin oso gustura geratu da zuzendaritza. "Oso giro ona egon da. Dena oso ondo atera da. Urtebeteko lan on bat egin da,

zoriondu gaituzte", diote.

Udalerriko biztanleria kopurua kontuan hartuta, eta eskubaloiak zenbat jende mugitzen duen ikusita, tradizioz eta parte hartze aldetik, talde handienetarikoa izango da Usurbilgoa. Eta handitzen jarraitzen du. Seniorretan adibidez, kirolari batzuk jokatu ezinik geratu dira aurten, gehieneko fitxa kopuru muga gainditzen zutelako. Halako aurreikuspenik ez zuen zuzendaritzak. Datorren urterako, eskaera hori badago, asetzen saiatuko direla adierazi dute klubetik.

Klubaren handitzeak instalakuntzak txiki geratzea ere ekarri du. "Zenbait egunetan 12 jokalariko hiru taldek entrenatu behar izaten dute aldi berean", diote Usurbil Kirol Elkartetik. Astean bitan, Eskola Kiroleko bost taldeek batera. Harmailak modu finkoan daude jarrita eta horrek ere espazioa txikitzen duela diote. Pistako aireztapena ere hobetu beharra dago euren esanetan, udan bero gehiegi egiten baitu aretoan. Udalak egoera hau hobetzeko konpromisoa hartua du, elkartetik adierazi dutenez. Egoera honi aurre egin ahal izateko, mahai gainean planteamendu bat jartzeari eskatzen dute. Ahalik eta azkarren.

Teknologia berrietara jauzia

Twitterren kontua zabandu du Usurbil Kirol Elkarteak. Honatx helbidea: @usurbileskubalo. E-posta: usurbilke@gmail.com.

Selekzioetan

Gipuzkoa, Euskadi nahiz Espainiako selekzioetan parte hartu duten jokalariek daude. Iaz lehen aldiz, "infantil, kadete eta jubeniletan, mutil nahiz nesketan, talde bakoitzeko jokalaririk batek" selekzio hautakoren batean parte hartzea lortu zuen.

Egonkortasun ekonomikoa

Egonkortasun ekonomikoa lortzea da taldearen beste erronka. "Ate asko jo behar ditugu eta, aurrekontua betetzeko". Horretarako babes beharrean dira. Jokalariei kuota zertxobait igo zaizkie denboraldi berri honetan baina ez dute aski. Udalerriko enpresa bat, Ucin, taldeetako baten babesle izatea lortu dute. Baina laguntza gehiagoren beharrean dira.

Pilota partidak

Azaroak 9 larunbata,

10:30 Aginaga

[Eskuz binaka nagusiak 3. maila](#)

USURBIL 1-ALLERRU 1

(Zendoia-Zinkunegi)

[Gipuzkoako finalerdiak:](#)

Eskuz binaka nagusiak ohorezko maila

USURBIL-AURRERA SAIAS 1

(Santxo-Urruzola) (Artola-Telletea)

Eskuz banaka nagusiak

USURBIL- ZAZPI ITURRI

(Kina) (Erostarbe)

Azaroak 9 larunbata,

17:15 Usurbil

[Eskuz banaka infantilak 1. urtea](#)

USURBIL 1-AÑORGA 4

(Imanol Galarraga)

USURBIL 2-OIARPE 1

(Jon Zumeta)

Irisasi BTT taldeko arropa eskuragarri



Kalitate oneko arropa, prezio egokian.

Mendiko nahiz errepideko bizikletan ibiltzeko arropa eta ekipazioa erosteko eskaintza egin dute bigarrenez, Irisasi BTT taldekoek. Kalitate bikaineko arropa dute salgai eta oso prezio egokian, adierazi dutenez.

Denen neurriko arropa prestatu nahi izan dute; XS, S, M, L, XL, XXL. Eskariak azaroaren 17ra arte egin daitezke.

Nola egin eskaria

Horretarako, Irisasi BTT taldekoekin harremanetan jarri behar da, 687 858 477 telefono zenbakira deituta, edo andatzabt@hotmail.com helbidera idatzita. "Ez galdu aukera! Oso eskaintza interesgarria baita!", adierazi dute kirol bilgunetik. Eskaria egiten dutenek, 6 asteren bueltan edo jasoko dute arropa, "zorte apur batekin akaso gabonetarako".

- Udako ekipazioa: mallot eta kulote motzak.
- Udaberri eta udazkenerako: kulote piratak eta

txalekoa.

- Neguko ekipazioa: mallot eta kulote luzeak.
- Euritarako txaketa.
- Osagarriak: besoetako mangitoak eta hanketarako pernerak.
- Udako kamiseta termikoa.

Buruntzapki Txirringulari Eskolaren denboraldi berria

Larunbat honetan, azaroaren 9an abiatuko dute kirol urtea. Azaroan, abenduan, apirilean eta maiatzean izango dira eskola saioak, eskola egutegian aurreko ostirala jai eguna ez den larunbatetan. Atsobakarreko parkean, goizez, 11:00etatik 12:00etara. Eskola, 2000-2001 artean jaiotako infantil eta 2002-2003 urteetan jaiotako alebin mailako kirolariei dago zuzendua. Eskolakoekin harremanetan jartzeko, buruntzapki@gmail.com helbidera idatzi dezakezue. Bloga ere badute: buruntzapki.blogspot.com.

Xabier Dorronsorok, aizkolaritza desafio berri baten atarian

Zumarragako Xabier Zalduekin batera, Jose Mari Esnaola eta Imanol Berasategi zegamarren aurka lehiatuko da, ostiral honetan, azaroaren 8an, iluntzeko 19:00etan Zegamako frontoian. 60 ontzeko 14 enbor ebaki beharko dituzte. Enbor hauen erdia, Zalduek eta Dorronsorok jarriko dute, beste zatia Esnaolak eta Berasategik. Lehia bizia izango da ziur, ez dute eta nola nahiko apustua egin. Jokoa, 4.000 euro jarri dituzte.



4.000 euro egongo dira jokoa.

Eskubaloia Kiroldegian

Azaroak 9, larunbata

9:30 Alebin neska:
Udarregi 6B-Udarregi 5C
9:30 Alebin neska:
Udarregi 5B-Urnieta 6B
10:30 Alebin neska:
Udarregi 5A-Urnieta 5A
11:30 Infantil neska:
Udarregi B Usurbil-Urnieta Guria Kafetegia
12:30 Infantil mutilak:
Udarregi Usurbil-Tolosa C.F. "A"
19:30 Senior mutilak, 2. nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-Hondarribia

Azaroak 10, igandea

10:00 Kadete neska:
Usurbil K.E.-Ermuko Errotabarri
11:30 Jubenil neska:
Usurbil K.E.-Ermuko Errotabarri

Futbola Haranen

Azaroak 9, larunbata

9:00 Benjaminak A.
9:45 Benjaminak B.
11:00 Alebinak.
12:00 Kadeteak.
16:00 Preferenteak.

Ion Korta, hirugarren

Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko kidea eta hirugarren izan zen Zallan, Euskal Herriko Mendi Duetloi zirkuituko bosgarren proban. Hamar probaz osaturiko zirkuitua osatzen ari da Ion Korta usurbildarra.



Bidarrai-Amaiur ibilbidea

Bi guneok lotzen dituen 17 kilometroko bidea egitea proposatzen diete mendizaleei Andatza MKTkoek azaroaren 10ean. Asteazken hau baino lehen eman behar zen ize-na. Irteerara abiatzeko igande goizeko 6:30etan jarri dute biltzeko hitzordua, Oiar-do Kiroldegi atarian. Otordua ibilbide amaieran egingo da. Jatekoa norberak eraman beharko du. Edatekoa, antolatzaileen esku.

tatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperiantziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperiantziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut

txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperiantziadun bat umeak edo pertsona helduak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldan lagundu edo baserriko lanetan aritzea. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketakegiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsaldean edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperiantziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, asteleheneetik ostiralera. Harre-

manetarako: 635742503

Mapfre aseguruetxearen bulegoarako Adminstrari-Komertziala behar da. Ezinbestekoa da herrikoaz itatea. Bidali kurrikuluma ullaitei@mapfre.com

Emakume bat zaindu eta etxeko lanakegingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. Interesatuak deitu 943361109 telefonora.

Zubietan 10.000m baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengobabarrunak

salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony markakoa. Egoera onean eta prezio bikaina, 80 euro. 653 014518

Pedaliak gabeko bizikleta batutzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbetean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Kolore more eta grisdun nesken-tzako bizikleta berria (Coluer) lapurtuziguten abuztuaren 31 narratsaldez, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

Aginagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bataurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpetak eta tronboi jole bila gabilta uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, eskegailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: goizez,

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Aber- Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorzetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia ..	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak azaroak 7-azaroak 17

Osteguna 7 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Ostirala 8 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Larunbata 9 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 10 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Asteartea 12 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Asteazkena 13 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Ostirala 15 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 16 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Igandea 17 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Agenda azaroa

8 ostirala

- "Aktibo toxikoa" antzezlanak 20:00etan Sutegiko auditorioan.

9 larunbata

- Konpostatzen ikasteko formazio saioa 12:00etan hilerri zaharreko konpostagunean.
- "Ez gara Palestinaz ari" bertso-musikatuak 20:00etan Sutegin.
- **Sexty Sexers eta Oreindik**, gaztetxean.

10 igandea

- Herriko ondarea ezagutzeko ibilaldia, 9:30-13:00, frontoitik abiatuta.
- Bidarrai-Amaiur irteera 6:30ean kiroldegitik.
- "Amaren eskuak" 18:00etan Sutegin. 5 euro.

Dantza mimoa edota klowna, "Aktibo toxikoa" antzezlanean

Patxi Santamaria aktore zarauztarraren antzerki-lana izango da ostiral honetan, azaroak 8, Sutegiko auditorioan. Antzezlanak 20:00etan hasiko da. Sarrera 5 eurotan eskuratu daiteke egunean bertan, eta aurrez Txiriboga tabernan eta NOAUA!ko egoitzan. NOAUA!ko bazkideek 3 eurotan lor dezakete, baina soilik NOAUA!ko egoitzan eta alde zurretik.

Patxi Santamariak eta Inaxio Tolosak elkarlanean ondutako obra da "Aktibo toxikoa". Patxi Santamaria da antzezlaneko aktore nagusia eta krisiak harrapatu duen gizon baten papera jokatzen du, umorez. Mundua antolatzeko modu ezberdin bat aldarrikatzen du, esentzialago bat, egungo mozorro eta eroskeria agerikoaren ordez.



Ostiral honetan, 20:00etan Sutegin.

Antzezlanak NOAUA! Kulturaldia egitasmoaren baitan antolatuta da. Elkarlanean aritu gara Antzerki Ekintza, EHAZE elkarteak eta NOAUA!. Kulturaldiko gainontzeko ekitaldietan bezalaxe, Usurbilgo Udalaren laguntzarekin.

Datozenak

Eñaut Elorrietaren eta Mikel Markezen saioa

Hitzaldi musikatu honen bitartez, "hurrengo belaunaldiei euskal musikagintza sakinago ezagutzeko, "maitatzeko" eta bizitzeko bitartekoak" eskaini nahi zaizkie. Iragina, oraina eta etorkizuna kontuan hartuta euskaraz sortutako musika protagonista da Eñaut Elorrietak eta Mikel Markezek abian jarri duten ikuskizun honetan.

Kantu Taldearen eskutik arituko dira datorren asteartean, azaroak 12, Sutegin. 19:00etan hasiko da. Sarrera: 5 euro, langabetuek 2 euro.



Asteartean, arratsaldeko 19:00etan hasiko da hitzaldi musikatuak.

Ipuin kontalaria udal liburutegian

Datorren asteazkenerako, azaroaren 13rako antolatuta dute Mikel Aiertzaren ipuin kontaketa saioa. 18:00etan Sutegi udal liburutegian. Saioa, 6 urtetik gorakoei zuzendua egongo da. Aiertzak, tresna eta marrazkiak baliatuko ditu euskarri gisa.

Paseatuz, herriko ondarea ezagutu

Herria beste modu batez ezagutzeko aukera izango da azaroaren 10erako antolatuta den ibilaldian. "Kaxkoan hasiko dugu goizetik eguerdi partera arte luzatuko den ibilaldia; Urdaiaga aldera lehenik, Txokoaldera gero, Aginagan amaitzeko. Herri-erorri zuzenduriko paseoa, zailtasun gabea, Jakoba Errekondo paisajistaren eta Itziar Illarramen- di irakaslearen argibideak bide lagun ditugula".

Oreindik eta Sexty Sexers, larunbatean gaztetxean

Oreindik eta Sexty Sexers taldeen emanaldiaz gozatzeko aukera izango da larunbat gauean, gaztetxean. Bi urte lozorroan egon ondoren, gogotsu itzuli dira Sexty Sexers-ekoak, eta beraien birako geldiuneetako bat izango da kooperatiba zaharra. Kontzertuaren ondoren Dj lanetan Elvis Caino arituko da rock abesti klasikoak pintxatzen.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 teilatuak eta fatxadak
 943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzealdea), LASARTE-ORIA

LATAILLADE
ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

GABONETAKO LOTERIA OPARI

Azaroan eta abenduan,
HURBILAGO txartela erabiltzen
duten bezeroen artean,
GABONETAKO LOTERIAREN
2,50 €ko partizipazioak
zozketatuko dira.

Saltokietan emandako tiket
sarituen truke, loteria
partizipazioak
Nafarroako Rural Kutxan
eskuratu ahal izango dira.

hurbilag

Usurbil
osasuna atez ate



Erosi zure herriko saltoki txikitetan. enplegua mantentzen
eta Usurbilgo herriari bizia ematen lagunduko duzu.
Denok irabaziko dugu.





NOAUA!ko KULTURALDIA 13

AZAROAREN 8TIK 17RA

AZAROAK 8 > OSTIRALA

"AKTIBO TOXIKOA", ANTZERKIA
ORDUA: 20:00 SUTEGIN
SARRERAREKIN

AZAROAK 9 > LARUNBATA

"EZ GARA PALESTINAZ ARI"
BERTSO-MUSIKATUAK
ORDUA: 20:00 SUTEGIN
SARRERAREKIN

AZAROAK 10 > IGANDEA

HERRIKO ONDAREA EZAGUTZEKO
IBILBIDEA, 9:30 FRONTOITIK
ABIATUTA, DOAN

AZAROAK 14 > OSTEGUNA

"BELARRIAK SOINU", HITZALDIA
JOSEBA TAPIA
ORDUA: 19:30 POTXOENEAN
DOAN

AZAROAK 15 > OSTIRALA

"IZENIK GABE, 200x133", JOSE LUIS
ZUMETAREN DOKUMETALA
19:30 SUTEGIN, GONBIDAPENA*

AZAROAK 17 > IGANDEA

"AGUR ESATEA" FILMA
IZASKUN ARANDIA
ORDUA: 19:00 SUTEGIN
SARRERAREKIN

SARRERAK: NOAUA!N, TXIRIBOGAN ETA LEIHATILAN.
GONBIDAPENAK: NOAUA!N ETA POTXOENEAN.

noaúa



Uztaritze Udala



Euzko Foru Aldundia
Departamentu Foral & Nagusiak



Euzko Legebiltzarra
Euzko Legebiltzarra



EHAZE